

20

22



Egitura eta balantze
ekonomikoa

Egitura eta balantze ekonomikoa

Administrazio-kontseilua

Lehendakaria
Eneko Goia Laso

Lehendakariordea
Jon Insausti Maisterrena

Kontseilariak

EAJ-PNV

Nekane Mendarte / Jaione Hervás

EH BILDU

Garbiñe Alkiza / Zigor Etxeburua

PSE

Duñike Agirrezabalaga / Cristina Lagé

PP

Borja Corominas

PODEMOS

Aitzole Araneta

2

Zuzendaritza-taldea

Zuzendari-gerentea:

Jaime Otamendi

Zuzendariaren teknikari laguntzailea:

Imanol Galdos

Administrazioa eta Baliabideak: **Rebeka Gallastegi**

Ekonomia eta finantzak: **David Feijo**

Komunikazioa eta Irudia: **Jaione Askasibar**

Liburutegiak: **Arantza Urkia**

Kultur Etxeak: **Jon Aizpurua**

Zinea: **Josemi Beltrán**

Festak: **María Jesús Torres**

San Telmo Museoa: **Susana Soto**

Musika: **Miguel Martín**

Ekoizpena: **José Ignacio Abanda**

Antzerkia eta Dantza: **Norka Chiapusso**

2022ko aurrekontua



Gastuak guztira:

29.322.203€



Diru-sarrerak guztira:

4.953.703€



Udalaren diru-ekarpena:

24.368.500€



DONOSTIA KULTURAREN ZEHARKAKO PLANAK:

Euskara Erabiltzeko Plana

Aurten ere euskaraz lan egiteko konpromezu irmoarekin jarraitu dugu. Horretara bideratutako hainbat pauso eman ditugu. Gure erakundearen diagnostiko bat egin dugu, Euskaraldian parte hartu dugu, euskaraz lan egiteko prestakuntza eman dugu, etab.

Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasun Plana

Aurten berdintasuna lantzeko egitura indartu dugu eta lan talde berritu horietan gure jardueri begirako hainbat lan abiatu ditugu. Bagoaz aurrera pausuz pausu.

Nazioarteratzea

Aurreko ikasturtean egindako diplomazia publikoari buruzko nazioarteko kongresuan sortutako eztabaida eta esperientzia-trukerako guneari segida emanez, 2022ko apirilean **kirolaren diplomaziari buruzko webinar** bat egin zen, eta berrehun lagunek baino gehiagok hartu zuten parte, berrogei herrialde baino gehiagokoak. Beste urrats bat izan zen hori, Donostia Kulturak nazioartean duen lekua sendotzeko.

Gainera, nazioarteko unibertsitateekiko lankidetzari dagokionez, Groningengo ikasle batek sei hilabeteko **ikerikuntza-egonaldia** egin zuen eta, hala, **Donostian diren diasporeri eta hiriko kultur politikarekin duten zerikusiarri buruzko lan bat** burutu zuen. Era berean, udan **Graz-eko Unibertsitateko** hiru ikaslek lanbide-praktikak egin zituzten Donostia Kulturako zenbait departamentutan.

Erakundeak munduan zehar egiten diren era askotako kongresu, mintegi eta bileretan parte hartzen jarraitzen du. Nazioarteko sareetan dago, eta sareoi esker **gune gero eta interkonektatuago bat** ari da eratzen **mundu osoko hiri, eskualde, herrialde eta erakundeekin**. Gero eta biziagoa da munduko hainbat tokitatik datorren eskaera, Donostiako ereduaz azaltzeko eta partekatzeko.